

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA (IGI)

Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Kontseiluaren 2023ko azaroaren 16an hartutako erabakiaren laburpena, bertan Ikastetxera joateko mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzea helburu duten ekintzak gauzatzeko diru-laguntza deialdia eta oinarriak onartzen dira

BDNS (Identif.): 730254.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/730254>).

Lehena. Erakunde onuradunak

Betebehar hauek betetzen dituzten ikastetxeek edo ikasleen familia-elkarteek (IFE) eskuratu ahal izango dute diru-laguntza:

- Ikastetxea Gasteizko udalerrian kokatua egotea edo, gutxienez, ikasleen ehuneko 60 udalerrian errolatua egotea.
- 2023ko irailaren 4tik 2024ko ekainaren 24ra bitartean ikastetxera joateko mugikortasun aktibo eta autonomia bultzatzeko proiektu bat garatzen aritzea edo garatzeko asmoa izatea.
- 2023ko irailaren 4tik 2024ko ekainaren 24ra bitartean jarduera horiek egiteak gastuak ekarri izana, fakturen bitartez egiaztatu daitezkeenak, mugikortasun aktibo eta autonomoaren sustapenari estu-estu lotuak.

Bigarrena. Helburua

Vitoria-Gasteizko ikastetxeei edo ikasleen guraso-elkarteei laguntza ekonomikoa ematea da diru-laguntza deialdi honen xedea, hain zuzen ere 2023ko irailaren 4tik 2024ko ekainaren 24ra bitartean ikastetxera joateko mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzea helburu duten ekintzak gauzatzeko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Kontseiluak 2023ko azaroaren 16an onartu ditu eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 15.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea deialdi honen laburpena ALHAOn argitaratzen denetik 2024ko ekainaren 24ra arte izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 17a

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Lehendakaria
BORJA RODRÍGUEZ RAMAJO